

Txakolin, ardao, mahats...

Euskerazko izen batzuk, generoaren eta prozesuaren ingurukoak

Txakolin izena berton, urak Kantaurirantz datozan eremuan egiten dan ardao motari emon izan jako tradizioz. *Txakolina*, ardao da, *gorri naparra* dan moduan. Gaur modan dagoan arren, izen zaharra berez.

XVI. mende akaburantz idatzi ziran Iburguen-Cachopinen kronikak beren-beregi aitatzen dau beronen izena: "Vino que llaman *txakolin*" IC II 175.

Azkue gure lexikografo handiak morfologia alderdiko ohar hau egiten dau beronen izenaz: "Merece consignarse que así como esta palabra, hay otras tres que designan bebidas y terminan en *in*: *ozpin*, *pitipin*, *txuzpin*". Baina *-in* amaierako hitzotan balio diferenteak egon daitezke: *min* (*ozpin*), *pitipin* horri *pitikin* be esaten jako leku batzuetan; *-kin* atzizkiaz loturea euki leike.

Barrutia Mondragoeko eskribauak (Aramaioko semea bera) bere Gabon ikuskizunean hau dakar kantuz, XVIII. mende erdi aldera:

"Beistegiko Gabriel, kañaberan kaskabel, /
Lindo mozo despatxatzeko *de vino blanco un pichel*,
Sekula iñok eztau ekusi onereango konturik,
Ezta posible eztaodela ene lagunak ordirik.
Ez al dezu dijeridu arratsaldeko salsea?
Txakolinorrek turbadu deutsa begietako bistea".

Mogelek *Peru Abarka*-n beren-beregi aitatzen dau *txakolina*, ardao moten artean:

"Nok esango leuke Landetako baserrijan imini jatala, uste-ustebagian sartuta, oillanda ta usakumezko erria, ta emen dakustan beste jaaki? Nok sinistu, aterako zeusteezala *iru ardao mueta*: *txakoliña*, *klareta ta naparra*? Emoidazu, Peru, *txakolin trago bat*... Brindo zure ta familia guzti onen osasunerako.

Ardao, *ardaoa*, **ardano* hitz zaharretik dator. Horregaitik *ardan*- osagai zaharrari eutsi deutso hitz alkartu eta eratorri askotan: *ardantze*, *ardandegi*, *ardanetxe*...

Ardaoa, esanguraz, berez eta jatorriz, mahatsarena ez eze, beste genero batzuek eginiko alkohol dun edaria be bada. *Sagardaoa* esaten deusagu sagarren ardaoari. Eta Mogel markinarrak, *maats ardaua* esaten deutso mahatsarenari, hau da, *mahatsaren ardao* dala adierazo guraz, ez bestetariko bat. Hara beronen berbak:

"Leen ozta ezagututen zan *matsardaua*. Sagasti asko zirian, ta *erriko ardao edo sagardauaz* igaroten zirian bizkaitar ta beste euskaldunak. Diruba geratuten zan bertan. Eztago ikusi baiño zeinbat *tolara* topetan dirian etxe zaarretan, ezertako eztirianak gaur".

Ardao txarra, txakolin eskasa, bitsduna zan, hurrean. Errefrau zaharrak dinoan lez:

"Ez ardao bitsdunik, ez andra bizartsurik. // Ni vino espumoso, ni mujer barbuda" (RS 455).

Ardan- hitz osagaiaz jositako hainbat hitz ditugu euskeraz:

Ardandegia edo *ardanetxea* eritxen lehenago gaur "taberna" deritxagunei. *Ardangela* eta *ardanetxe* erabili izan dira "bodega" esateko be. Mogelen testuetan *ardantegi* eta *ardanetxe* hitz biak. Mogelenak dira ondokook:

"*Ardanetxe* edo Tabernak gogo obiaz bisitau daruazana" (CO 220), "aldegin biar dabee *Ardanetxe* edo Tabernetati" (CO 279), "Da *Ardantegi* edo Tabernia, dakijanarentzat [...] an sartu ezkerro igaroten dala ardaun" (CO 123).

Ardanbera, *ardanbera* esan izan dira, *gaztai* hitzetik *gaztanbera* sortu dan antzera, ardaoaren *madrea*, edota *sagardoarenari* deitzeko.

Ardantza, *ardantzea* izen zaharraz izendatzen zan antxina, gaur “mahasti” deritxoguna.

Ardankoia esan izan jako leku batzuetan *ardaozale* danari, *emakoi* deitu izan jakon moduan *andrazaleari*.

Ardan lurrak zirala Oiz barreneko, Durangoaldera egozan lurrak, Ganostekoak, esaten eustan aspaldi, Geriako semea (Mallabia) zan Sabin Barruetaña fraileak. *Ardan-lurrak*.

Dolara, -ea: tolarea.

Dolarea (lagar), *tolarea* be deitua, txakolina egiten zan etxeetan egoten zan. *Dolarea* eukitea, errotea eukitea lez, ondasunak eukitearen seinale zan; etxaguntza on baten ezaugarri zan dolarea eukitea. Eta dolararik ez eukitea, etxe pobreagoen seinale. Ez beti, antza, XVI. mende akabuko *Refranes y Sentencias* bildumako atsotitz batek emoten deuskun erakutsiaren arabera:

“*Dolara* bako etsatxuetan / baleuke andrea diruetan. / En las casillas sin lagar / podría haber mujer en dineros.” (309).

Dolarea egoan etxeari *dolaretxea* esaten jakon, *errotea* egoan etxeari *errotaetxea* eritxon antzera. Belendizen (Arratzu) bada *Dolatze* izeneko etxea, lehenagoko denporetatik *txakolina* egin izan dana.

Tolare da Gipuzkoa aldean *dolara* izenaren aldaera. Onomastikan agiri da garbiroen. *Tolare* da Donostiako baserri ezagun bat be.¹ *Tolaretxipi*, bai leku-izen, etxe-izen modura, eta bai deitura-izen modura agiri dana.

Mahatsa, landareari, mahats ura, gero mahats ardao bihurtzen danaren uzta sortzen dauen landareari, eta frutuari berari deitu izan jako.

Mahatsorria: Bilboko Begoña auzokoen goitizen modura geratu da “matsorri”. Artxanda barreneko lur aldarrak ardan-lurrak izan diran lekuko gisa. Ezagunak ziran, aldi baten, Begoña goieneko txakolindegia.

Mahats karrera edo ilara: *Mahats karrera* lez izenteu dau Lezamako txakolingile batek mahats ilerea. (Serafin Loroño. 2018-03-05).

Muna-mahatsa: lantzar, landa edo solo baten munan, ilaran, landatzen zan mahatsari esaten jako *mune-mahatsa* (Lezama. Serafin Loroño. 2018-03-05).

Parrea batez be, baina **parrala** be deitu izan jako. Konposaturik be sarri: *Mahats-parrea* edo *mahats-parrala*.

Mahasti, lehenago *ardantza* edo *ardantze* be eritxonari gaur ezagunena jakon izena. Aldaerok be ezagunak dira: *mahastuia* eta *mahasteia*.

¹ Euskaltzaindiaren Gipuzkoako egoitza dan “Luis Villasante ikertegia” dagoan baserri-etxearen izena da *Tolare*.

Mordoa eta **mordea**, izen biak hartzen ditu erderaz “racimo” dalakoak, bizkaieraren sortaldean lehenengoak eta sartaldean bigarrenak. *Mordoa*: *mordoa* (*mordue*, *morduek*) deritxo Durangoaldean, esaterako, eta *mordea*, *mordak* Butroialdean, esaterako.

Juan Mateo bilbotarraren pasarte bat dator eraz, mahats-batzea dala eta:

“*Matsak* batzen dabileneti ikasi ziñaike zelan egin. Au, otzarea ta gurguillua *artuta* [arturik], asten da *mastuiaren* alderdi batetik, ta erreskaan erreskaan batuten dituz, ondo begiratuta ikusten dituzan *mordaak* [*mardoak*], eta alantxek bata besteen atzean dabil guztia. Gero ori asko ez tala baiki, ta bigarren ibilaldi bat egin ta batuten deutzaz *matsorri* artean *ezkutaarik* [ostendurik, osteiturik] gelditu jakazan *lakain* giñokoak.” (I 4).

Mahatsaren prozesuari joakozan berba gitxi batzuk:

Ura egitea, *erregau* deritxoe Butroialdeko herrietan.

Satsa egin edo **simaurrea egin**, sartaldean lehenengoa, bizkai sartaldetik ekialdetik bigarrena.

Mahats-batzea, hitz konposatu finkoa.

Zapaltzea: Mahatsa zapaltzeko prozesua aitzen emoteko honetariko izenak entzuten dira: *zapaldu*, aditz soilaz, *zapaldu-zapaldu* aditz errepikatuaz, eta *zapal-zapal egin* be bai.

Oinutsik edo *ortozik* egin izan da paraje askotan mahats-zapaltzea.

Irakin edo **fermentau** aditzez adierazoten da mostoa ardao bihurtzeko prozesua. *Odolak dirakian* moduan, mahatsak be *diraki*.

Lohia, zikina, zaborrea... eta beste era askotara deritxo, irakin orduan, ardao irakinaren azalean geratzen danari.

Pitipina, hitz bakana, baina adierazkorra aldi berean. Barrenean gelditzen ziran azal eta mahats hondarrakaz, hari ura botata egiten zan edaria. Baserrian danari probetxua atera izan jako eta.

Inaustea: *Inausi* gitxi entzuten da gaur herri-berbetan. *Podau* erabilten da gehiago sartalde inguruetan. Baina gaur egungo izendapen landuetan atzera bizibarritu dira aditz honen eratorriak: *inausketa*, *inaustea* eta abar. *Ilbeheran* egiteko ohitua jagon da baserrietan.

Orditzea edo **Ordirik egotera** heltzea izan da txakolin gehiegiaz pispildu, birloratu eta buru-zorabioa oraindino gehiagora heltzen daneko egoera.

Juan Mateo Zabala, bilbotar semea, baina gurasoak, bata Bakiokoa, bestea Areatzakoa zitzuan fraile idazleak, bere sermoietariko baten dakazan azalpenak datoz, honen gainean, era-erara, *ordirik* bat noiz dagoan erakusteko.

Lehenengo pasarte:

“Norbaitek itanduko deust:

–Aita, noz edo zetan igarriko deutzagu orditu gareana (...)?.

–Ara bada. Lelengo, biaramonean gomuta eztozunean zer egin eta zer esan zenduan edan ezkerro; bigarren, besteetan baketsua izanik, etxe guztia eta etxeok errebolbietan dozuzanean; irugarren, maldizino, birao edo blasfemiak botaten dozuzanean, olango ekandu edo usadiorik euki bagarik; laugarren, etxera nondik zabilzan eztakizula zoazanean, biderik zabalena bedar-estuak dozuzala: emeko ormea jo, ango munean jausi, sasi onetan etxun eta ango lupatzen sartu, urrenge egunean eztakizula, ez non jausi, ez non loitu dozuzan soinekoak. Onelango gauzaren bat jazoten jatzuenean bada, ezagun da ordirik zengozena”.

Bigarren pasartea:

“Itandu bekio ordirik andienari ea ardaoac gatzik egin deutsan edo zentzuna galdu deutsan, edo besteetan legez gauzaak ez egiteko ardaoak inoz imini dauenez, eta bertatik erantzungo dau: “Ez, aita. Ara, edan ondotxu eta alegretxu ifini eta txoromorotu bai, baia ordirik ez inoz bere”.”

Adolfo Arejita

2018-03-23